

## Kooperatibismoa eta eraldaketa soziala landuko dute, ekainaren 10ean, Kooperatibagintza Topaketaren 4. edizioan

2016/05/25

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Lanki Ikertegiak antolatuta, kooperatibismoaren eta eraldaketa sozialaren arteko harremana landuko dute, ekainaren 10ean, Kooperatibagintza Topaketan. Izan ere, horixe da topaketaren laugarren edizio honetako izenburua: "**Kooperatibagintza eta eraldaketa soziala**". Ekitaldiak Eskoriatzako campusean egingo dira eta ekainaren 3ra arte egongo da aukera izena emateko.



Iazko topaketako hitzaldietariko bat.

### Egitaraua

- **09:00** Ongi etorria. Bixente Atxa MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektorea.
- **09:15** Kokapena: *Eraldaketa soziala Arrasateko kooperatiba esperientzian*. Aitzol Loyola (MONDRAGON UNIBERTSITATEko Lanki Ikertegia).
- **09:45** Lurraldeari atxikitako esperientzia sozioekonomikoak:
  1. Ipar Euskal Herria – Xabier Itcaina (Sciences Po Bordeaux).
  2. Bartzelonako Sants Auzoa – Elba Mansilla (LaCiutat Invisible).
  3. Ipar Irlanda eraldatzen – Gorka Espiau (Young Foundation).
  4. Ekonomia Soziala Quebecen — Enekoitz Etxezarreta (Gezki– EHU).
- **11:30** Atsedenaldia.
- **12:00** Talde dinamika.
- **13:30** Itxiera hitzaldia: Igor Ortega (MONDRAGON UNIBERTSITATEko Lanki Ikertegia).

Topaketa irekia da baina, aretoak duen edukiera kontuan izanda, parte hartu nahi dutenek aldez aurretik izena eman beharko dute. Interesatuek bi bide dituzte izena emateko:

- Emaila idatzita hurrengo helbidera: [akareaga@mondragon.edu](mailto:akareaga@mondragon.edu))
- Galdetegia beteta: [Izen-emate orria online](#)

- Aurtengo egitaraua PDF formatuan.
- Koperatibagintza Topaketako urreko edizioei buruzko informazioa.
- Eguneraketa (2016-06-10): jardunaldi argazki galeria.